

LAN ESKAINTZA

Koordinatzaile postua

Elkartea

Zukugailua elkartearen helburua, Euskal Herriko ikus-entzunezko eta zinema sorkuntza sostengatzea eta sustatzea da. Ikus-entzunezko eta zinema arloko eragile ezberdinak batzen dira elkartearen (autoreak, film egileak, ekoizleak, banatzaileak, teknikariak, zinema kudeatzaileak etab.) euskal zinemari beharrezkoak zaizkion ahalak emateko, bere garapenean, ekoizpenean eta hedapenean, bereziki sorkuntza gaztean, lurraldeko profesionalak formatzera lagunduz eta gazteak sorkuntza zinematografikoari sentsibilizatuz.

Bost ekintza eramaten ditu helburu hauek betetzeko:

- Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa euroeskualdeko zinema arloko profesionalen arteko topaketak erraztu.
- Elkarlanerako saioak edo sorkuntza erresidentziak antolatu, sektoreko eragileen gaitasunak azkartzeko.

Elkartearen baitan erabiltzen diren hizkuntzak euskara, frantsesa eta gaztelera dira.

Koordinatzaile postua

ZUKUGAILUA elkartearen lurraldean eragiten duten ikus-entzunezko eta zinema arloko profesionalen osatua da. Koordinatzaileak, administrazio kontseiluarekin batera, misio hauek bete beharko ditu :

Sareen animazioa

ZUKUGAILUA elkartearen Ipar Euskal Herrian ikus-entzunezko eta zinema arloan eragiten duten pertsona eta egituren bateratzean eraikia da. Harreman estuak ditu lurralde mugakideetan diren sektoreko beste egiturekin. Koordinatzailearen funtzio nagusietarik bat sare horien animatzea izanen da eta egitura ezberdinen arteko informazio trukaketa erraztea.

Elkartearen koordinazioa

Elkarte biziaren eguneroko kudeaketaz arduratuko da koordinatzailea (lantaldeen bilkurak, administrazio kontseiluak, biltzar nagusiak, partaideekin bilkurak...).

Koordinatzaileak proposamenak ekar eta plantan eman ditzake animazio tresnen edo lan eta komunikazio metodoei doakionez. Egituraren komunikabide ezberdinen elikatzea eta animatzea beregain izanen da (webgunea, sare sozialak, berripapera,...).

Kudeaketa administratiboan ere parte hartu beharko du, administrazio kontseilua eta kontabilitate kabinetearekin kolaboratuz (aurreikuspenak, kontabilitatearen segipena...)

Proiektu kudeaketa

Koordinatzailearen lana elkarteak garatzen dituen proiektuen segitzea eta koordinatzea izanen da.

Administrazioan: diru-laguntza eskaerak pausatu, bilanak idatzi, segipen ekonomikoa egin

Antolakuntzan: jarduerak antolatu, proiektu deialdiak antolatu, partaide eta hizlariak kontaktatu eta segitu, publikoak kudeatu, komunikatu.

Lan baldintzak

- **Enplegatzea** : 2022ko 2. semestroa
- **Kontratua** : 6 hilabeteko CDD-a, CDI batera iritsi daitekeena
- **Orduak** : 35 oren (denbora partziala ere izan daiteke), bilkurak edo jarduerak arratsetan edo asteburuetan izan daitezke, proiektuen arabera
- **Lansaria** : perfilaren arabera
- **Lantokia** : Bidarrai (moldatzen ahal edo tele-lana izan daitekeena)

Eskaturiko gaitasunak :

- Kultur proiektu kudeaketan edo zinema eta ikus-entzunezko ekoizpenean esperientzia beharrezkoak
- Harremanetan erraztasuna, taldean lan egiteko gaitasuna
- Autonomia eta inizatibak hartzeko gai
- Ikus-entzunezko eta zinema sektorearen ezagutza
- **Kontabilitatezko ezagutzak** ukaitea eskertuko da (aurrekontuak egin)
- Informatika tresnen ezagutza ona
- **Ahozko zein idatzizko adierazpen** erraztasunak, euskaraz eta frantsesez
- Gaztelera nozio azkarrak

Hautagaitzak edota xehetasun eskaerak helbide honetara igorri: info@zukugailua.eus

Hautagaitzak bidaltzeko epea : 2022ko uztailaren 15a